

FRANÇOIS BUCHER.—*The Pamplona Bibles. A facsimile* compiled from two picture Bibles with martyrologies commissioned by King Sancho el Fuerte of Navarra (1194-1234) Amiens Manuscript Latin 108 and Harburg MS. I, 2, lat. 4.º, 15. New Haven and London: Yale University Press, 1970.

Bibliak euskal literaturan duen garrantziagatik, gure artean hain guti ezagutzen den liburu baten berri eman nahi dugu. Egia esan, obra hau, J. Goñi Gaztanbidek adierazi zuen 1971n *Principe de Viana* aldizkarian, eta Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-n ere aipatzen da, IX. tomoko 22 eta 69. orrialdeetan. Hala ere, gure artean oso guti ezagutzen dela aitortuko dugu.

Bi tomotan argitaratu zen obra hau Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan ikusi dugu. Telaz enkuadernatua, 30,5 x 20 zm. neurritz. Lehen tomoa testo hutsa da, ikerketaz, oharrez eta orijinalaren itzulpenez. 382 orrialde ditu. Bigarren tomoa faksimilez da, Nafarroako Santxo Azkarraren Biblia osoa, irudiz osatua, bostehundik gora planatakoa. Irudiok latinez adieraziak dira eta ingleserako itzulpena lehen tomoan dator.

Azterketaren lagungarri Erdi-Aroan horren antzerako Biblietatik jasotako 108 irudi datoz. Beraz, Bibliaren informaketa haina artearena dator. Baina, gure kasoan bere garrantzia du XIII. mendean Nafarroako erregeren kortean era horretako Bibliak ezagutzen zirela jakiteak. Era berean, gure herrietan zer-nolako ezagutza zuenaren aztarna ematen digunez. Leizarraga bera eta inprimategiaren sorkuntza baino lehenago ere bazen Biblia ezagutzen zuenik, eta gai hori erabiltzen duenarentzat kontuan hartu beharrezkoa iduritzen zaigu.